Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko martxoaren 11, astelehena — 48 — Lunes, a 11 de marzo de 2019

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZUMARRAGAKO UDALA

*Iragarkia*

Udal-Batzarrak, 2019ko otsailaren 27an egindako ez-ohiko bileran, Zumarragako udal baratzeak esleitzeko eta kudeatzeko araudiari - Zumarragako Baratze Parkea lehenengo onespena ematea erabaki zuen.

Toki-Jaurbideari buruzko Legearen 49. atalak dioenaren arabera, erabaki horren berri ematen da, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hogei ta hamar eguneko epean, nahi duenak espedientea aztertu eta egoki iritzitako ohar nahiz erreklamazioak egiteko.

Aipatutako epe horretan oharrik aurkezten ez bada, edo eta hasierako onespena eman zaion dokumentuari egiteko aldaketarik proposatzen ez bada, Erregelamendua behin betiko onartutzat hartuko da eta bere testua oso-osorik argitara emango da.

*Zumarragako udal baratzeak esleitzeko eta kudeatzeko araudia –Zumarragako baratze parkea–.*

### I. ATALA

### XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Araudiaren xedea.*

Araudi honen helburua da Zumarragako Baratze Parkeko lursailen erabilera, gozatze eta aprobetxa mendua arautzeko behar diren baldintzak ezartzea, eta, halaber, baratze horiek esleitzeko prozedura, baratzeetako laborantza-jarduera, erabiltzaileen erantzukizuna arautzea eta diziplina-araubidea finkatzea.

Zumarragako Udalak araudi hau alda lezake, baita araudi berri batez ordezkatu ere, Baratze Parkea hobetzeko eta egoki funtzionatzeko helburuz. Hala gertatuz gero, araudi berria automatikoki onartuko du errentamendu-kontratuaren titularrak, behin modu frogagarriaren bitartez jakinarazi ondoren.

*2. artikulua. Aplikazio-eremua.*

Araudiaren aplikazio-eremu objektiboa Zumarragako Baratze Parkearen barruan dauden lursail guztiak hartzen ditu.

Eremu subjektiboari dagokionez, araudi honetan jasotako arauak aplikatuko zaizkie Zumarragako udalerri honetako izatezkoen eta zuzenbidezko egoiliar guztiei, baldin eta aisialdirako baratze ekologikoak erabiltzeko, gozatzeko eta aprobetxatzeko aukera badute eta Araudi honetan baratzeak esleitzeko aurreikusitako baldintza guztiak betetzen badituzte.

Zumarragako Baratze Parkea proiektuaren helburu nagusiak hauek dira:

— Aisialdi aktiborako topagune bat sustatzea.

— Bizi-kalitatea eskainiko duen berdegune berri bat sortzea.

— Nekazaritza ekologikoa bultzatzea.

## AYUNTAMIENTO DE ZUMARRAGA

*Anuncio*

El Ayuntamiento-Pleno, en sesión extraordinaria celebrada el día 27 de febrero de 2019, aprobó inicialmente la Ordenanza reguladora de la adjudicación y gestión de huertas municipales de Zumarraga - Zumarragako Baratze Parkea.

Lo que de conformidad con el art. 49 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local se hace público para que en el plazo de 30 días a partir de la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa pueda examinarse el expediente y presentarse las alegaciones y sugerencias pertinentes.

En caso de que en el citado plazo no se formule ninguna alegación, o no se planteen modificaciones al documento inicialmente aprobado la Ordenanza se estimará aprobada con carácter definitivo y se procederá a la publicación del texto íntegro de la misma.

*Ordenanaza reguladora de la adjudicación y gestión de huertas municipales de Zumarraga –Zumarragako baratze parkea–.*

### TÍTULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Objeto de la ordenanza.*

La presente Ordenanza tiene por objeto la regulación de las condiciones necesarias destinadas a reglamentar el uso, disfrute y aprovechamiento de las parcelas de Zumarragako Baratze Parkea, así como regular el procedimiento para la adjudicación de las mismas, la regulación de la actividad de cultivo de los huertos, responsabilidad de las personas usuarias y el régimen disciplinario.

El Ayuntamiento de Zumarraga podrá modificar la presente ordenanza, así como sustituirla con el objeto de mejorar Baratze Parkea y que funcione correctamente.

*Artículo 2. Ámbito de aplicación.*

El ámbito objeto de aplicación de la Ordenanza abarca todas las parcelas que están dentro de Zumarragako Baratze Parkea.

En cuanto al ámbito subjetivo, la reglamentación contenida en esta norma, será de aplicación a todas aquellas personas residentes de hecho y derecho en este municipio de Zumarraga que puedan optar al uso, disfrute y aprovechamiento de los huertos ecológicos de ocio que cumplan los requisitos previstos en esta Ordenanza para su adjudicación.

Los principales objetivos de Zumarragako Baratze Parkea son los siguientes:

— Fomentar un punto de encuentro para el ocio activo.

— Crear un nuevo espacio verde que ofrezca calidad de vida.

— Promover la agricultura ecológica.

EK\CV GAO-I-2019-01439

— Erabiltzaileen artean ingurumenarekiko errespetua sustatzea.

— Gizarte-talde desberdinen arteko elkarbizitza eta giza harremanak bultzatzea; euskal kultura eta hizkuntza sustatzea, eta hizkuntza-aniztasunari balioa ematea; gizon eta emakumeen arteko parte-hartze orekatua izatea; belaunaldien arteko trukea bultzatzea, eta arazoak dituzten giza taldeei laguntzea.

*3. artikulua. Definizioak.*

a) Erabiltzailea: Lagatzen den ondasuna, baratze publikoa, erabiltzeko edo aprobetxatzeko eskubidea jasotzen duen pertsona fisikoa. Hemen garrantzia duten ondorioetarako, aisialdirako baratze ekologikoaren lagapenaren onuraduna.

b) Fruituak: Baratzearen erabileratik lortzen diren etekinak, hau da, ereitetik eta lur-lanketaren ondorioz lortutako produktuak; esate baterako, barazkiak, frutak, lekariak, etab.

c) Elementu komunak: Baratzeak kokatutako Udalaren lursailean berez edo propio jarrita dauden elementuak, zenbait jaberi edo denei balio dietenak; esate baterako, bideak, hodiak, uraskak, konposta egiteko ontziak eta abar. Era berean, elementu komuntzat joko dira erabiltzaileen esku jartzen diren laborantzako lanabesak eta gainerako tresnak.

d) Erantzukizuna: Baratzeen erabiltzaile bakoitzak bere gain duen erantzukizuna da, nork berea eta erabiltzen duen lursail zatiaren araberakoa.

e) Baratze ekologiko: Bakoitzak duen lursail zatia; zati horren gainean eratzen da erabili, gozatu eta aprobetxatzeko erabiltzaile bakoitzak duen eskubidea; aisialdirako baratze ekologiko ere deitzen zaie.

f) Lursaila: Aisialdiko baratze ekologikoak kokatutako Udalaren lursaila.

g) Bizikidetza unitatea. Etxebizitza berean izatez eta zuzenbidez elkarrekin bizi diren pertsonak, alegia, bi ezkontideak edo izatezko bikotekideak (edo horietako bat, alargundua, banandua edo dibortziatua egonez gero) eta adingabeko seme-alabak, etxebizitza berean bizi badira.

h) Interes taldeak: Beren ezaugarri bereziak direla-eta beste batzuen aldean gizarte egoera ahulekotzat hartzen diren kolektiboak, hala nola, erretiratuak, langabetuak, gaitasun urrikoak edo interes berezikotzat hartzen direnak, esate baterako, irabazi asmorik gabeko elkarteak edota udalaren interesekoak, eskolak eta abar.

i) Kuadrilla: lagun taldea lotura indartsua dutena gazte garaitik eta normalean beraien arteko adiskidetasuna heldu garaian mantentzen dena.

*4. artikulua. Elkartearen eraketa.*

Behin betiko esleipendun diren pertsonak derrigortuta egongo dira, batetik, elkarte bat eratzera, baratzeak kudeatzeko; eta, bestetik, pertsona bat izendatzera, Udaleko kudeaketa arduradunarekin harreman zuzena izateko. Bozeramaile honek jasoko ditu erabiltzaileen zalantzak, arazoak etab.

Horrez gain, elkartearen xede izango dira Zumarragako Baratze Parkearen erabilera zuzena ziurtatzea eta gutxieneko mantentze lanak egitea.

Elkartea ez bada eratzen eta hartako kide izateari uko egiten bazaio, galdu egingo da lursaila erabiltzeko eskubidea.

*5. artikulua. Baimen-epea.*

Lursailaren aprobetxamendua eta/edo erabilera urtebeteko epeaz emango da; epe hori gehienez lau urte arte luzatu daiteke.

— Fomentar el respeto a la naturaleza entre las personas usuarias.

— Promover la convivencia y las relaciones humanas entre diferentes grupos sociales, y poner en valor la diversidad lingüística. Que la participación de hombres y mujeres sea equilibrada, fomentar el intercambio generacional y ayudar a los grupos con problemas.

*Artículo 3. Definiciones.*

a) Persona usuaria: Persona física a favor de la cual, se constituye el derecho a usar y aprovechar el bien, la huerta pública que se cede. A los efectos que aquí interesan, la persona beneficiaria de la cesión sobre el huerto ecológico de ocio.

b) Frutos: Rendimientos que se derivan del uso del huerto, esto es, los elementos que derivan de la siembra y tratamiento de la tierra, tales como verduras, frutas, hortalizas, etc.

c) Elementos comunes: Son los elementos naturales o dispuestos en la parcela municipal donde se encuentran los huertos y que sirven a más de uno de los propietarios o propietarias o a la totalidad en común, como son los caminos, las tuberías, las albercas, las composteras, etc. Igualmente tienen consideración de elemento común los aperos de labranza y herramientas que se ponen a disposición de las personas usuarias.

d) Responsabilidad: Se trata de la responsabilidad que recae sobre cada persona usuaria de los huertos, de forma individualizada y en relación con la porción de terreno de la que sea usuario o usuaria.

e) Huerta ecológica: Porción de terreno individualizada, sobre la cual se constituye el derecho de la persona usuaria para el uso, disfrute y aprovechamiento. También se le llama huerto ecológico de ocio.

f) Parcela: Terreno municipal donde están los huertos ecológicos de ocio.

g) Unidad convivencial: Personas que conviven de hecho y de derecho en una misma vivienda, teniendo la consideración de tales las y los dos cónyuges o parejas de hecho (o uno de ellos o ellas en caso de viudedad, separación o divorcio) e hijos o hijas menores de edad que convivan en el mismo domicilio.

h) Grupos de interés: Colectivos que por sus especiales características se consideran vulnerables respecto de otros, tales como personas jubiladas, personas en situación de desempleo, diversidad funcional, o bien se consideran de especial interés tales como asociaciones sin ánimo de lucro o de interés municipal, escuelas, etc.

i) Cuadrilla: grupo de amigos muy fuertemente vinculados ya desde jóvenes y cuya amistad se mantiene generalmente durante la edad adulta.

*Artículo 4. Creación de la asociación.*

Las personas adjudicatarias con carácter definitivo estarán obligadas a constituir una asociación para la gestión de la mismas, y a designar una persona para el contacto directo con la persona responsable de gestión del Ayuntamiento. Esa persona se encargará de recoger las dudas, problemas, etc. de las personas usuarias.

Además, serán objetivos de la asociación salvaguardar el funcionamiento correcto de Zumarragako Baratze Parkea y realizar un mínimo de mantenimiento.

La no constitución de la asociación o la negativa a formar parte de la misma dará lugar a la pérdida del derecho de uso de la parcela.

*Artículo 5. Plazo de autorización.*

El aprovechamiento y/o uso del terreno se concederá por periodos anuales, siendo susceptible de prórroga hasta un máximo de cuatro años.

EK\CV GAO-I-2019-01439

Luzapenak hitzartuta daudela ulertuko da baldin eta aldeetako baten aurreabisurik ez bada jasotzen emakida edo luzapenak amaitu baino hilabete bat lehenago.

Esleipendunak baratzea garbia utzi beharko du, baimenepea amaitu aurreko hilabetean, eta hurrengo esleipendunak lantzeko moduan.

*6. artikulua. Erabilera printzipio orokorrak.*

1. Zaintzeko eta mantentzeko printzipioa: Aisialdirako baratze ekologikoen erabiltzailearen betekizun nagusia izango da lagatzen zaion lursaila egoki zaindu eta mantentzea, eta behar bezalako arreta edukitze a hura erabiltzerakoan, baratzeak osasuntsu, apain eta landuta mantendurik.

2. Errespetu-printzipioa instalazioak erabiltzerakoan: Aisialdirako baratze ekologiko bat lagatzen zaion pertsona orok ahalegina egin beharko du gainerakoei eragozpen, kalte edo galerarik ez eragiteko.

3. Salerosketarik ez egiteko printzipioa: Baratzeen lagapen hartzaile guztiek debekatuta izango dute baratzetako produktuak erabiltzea xede komertzialerako edo ustiapen ekonomikorako. Baratzeen laborantzatik eratorritako lurraren fruituak autokontsumorako edo Elkarteak adostutako beste helburu sozial batzuetarako erabiliko dira, baina ez dira, inola ere, etekin ekonomikoak jasotzeko erabiliko.

4. Autohornikuntza-printzipioa: Baratzeak lantzetik sortzen diren produktuak erabiltzaileak edo haren familia-unitateak bakarrik kontsumitu ahal izango dituzte.

5. Ingurumen-prebentziorako printzi pioa: Baratzeen erabileraren onuradunak diren pertsonek ez dute erabiliko lurrari kalte larriak eragin diezazkiokeen ongarririk edo produktu fitosanitariorik, horiek lurra bera edo egon litezkeen akuiferoak kutsatzen baitituzte; beraz, lursailaren laborantza ekonomikoaren gaineko araudian azaldutako termino zehatzei jarraitu behar zaie.

*7. artikulua. Erregimen aplikagarria eta erregulazioa.*

1. Aisialdirako Udal Baratze hauen erabilera, eremu publikoko ondasunen erabilera komun berezi gisa kalifikatu behar da, Tokiko Korporazioen Ondasunen Araudiko 75.1.b) artikuluak dioenari jarraikiz; hori dela eta, baimena lortu beharko da, eta baimen kopurua mugatua denez, baratze ekologikoen ustiapenerako erabilera-baimena eskatzaile guztien arteko lizitazio bidez esleitu beharko da. Hala ere, Zumarraga Udalak gorde ahal izango ditu, interes taldeei espezifikoki zuzenduriko lursail batzuk.

2. Beraz, eremu publikoko ondasunak erabiltzeko baimen bat denez gero, informazio publikorako epe bat ezarriko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak 83. artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera.

3. Aisialdirako baratze ekologikoen esleipen, jabetza eta gozatzeari aplikatuko zaion erregimena izango da Araudi honetan aurreikusitakoa.

4. Subsidiarioki, aplikatuko dira Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean jasotako arauak zein Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduan jasotakoak.

5. Esleitu beharreko baratzeak baino onartutako eskaera gehiago balego, zozketa bidez egingo da esleipena.

*8. artikulua. Baimenaren-titulua.*

Baimenak ematen duen baratzearen erabilerarako eskubidea pertsonala da eta transferiezina, eta soilik balioko du bere lagapenerako ezarritako baldintzak betetzen diren bitartean. Erabiltzaileak ezingo du, inola ere, laga, zergapetu, edo doan

Las prórrogas se entenderán acordadas si no mediara un preaviso de cualquiera de las partes con un mes de antelación a la finalización de concesión o de sus sucesivas prórrogas.

La persona adjudicataria deberá dejar, en el mes final del plazo de autorización, el huerto limpio y apto para ser cultivado por la siguiente persona adjudicataria.

*Artículo 6. Principios generales de uso.*

1. Principio de conservación y mantenimiento: Será obligación principal de la persona usuaria de los huertos ecológicos de ocio la adecuada conservación y mantenimiento del terreno que se le ceden, debiendo aplicar la debida diligencia en su uso, manteniendo la salubridad, el ornato y el cultivo de las mismas.

2. Principio de respeto en el uso de las instalaciones: toda persona que sea cesionaria de un huerto ecológico, deberá evitar molestias, daños o perjuicios a las demás personas.

3. Principio de no comerciabilidad: A quienes se les han cedido los huertos tendrán prohibido dedicar el cultivo de los mismos para fines comerciales o de explotación económica. Los frutos derivados de la labranza de los huertos se destinarán al autoconsumo o a objetos sociales acordados por la asociación, pero de ningún modo para percibir rendimientos económicos.

4. Principio de autoabastecimiento: Los frutos de la tierra, que se originen por la siembra de los huertos, únicamente podrán ser objeto de consumo propio o de la unidad familiar, sin que puedan destinarse a percibir rendimientos económicos.

5. Principio de prevención ambiental: Las personas beneficiarias del uso de los huertos se cuidarán de no utilizar productos fertilizantes ni productos fitosanitarios que puedan provocar un grave perjuicio sobre la tierra, contaminando la misma y los acuíferos que puedan existir, en los estrictos términos expuestos en esta Ordenanza sobre el cultivo mediante sistemas de agricultura ecológica.

*Artículo 7. Régimen aplicable y regulación.*

1. El uso de estos Huertos de Ocio Municipales, debe calificarse de uso común especial de bienes de dominio público, según establece el art. 75.1.b) del Reglamento de Bienes de las Corporaciones Locales, por lo que deberá someterse a autorización, y dado que el número de autorizaciones es limitado, la autorización de uso para la explotación de las huertas ecológicas deberá adjudicarse mediante licitación entre todas las personas solicitantes. Sin embargo, el Ayuntamiento de Zumarraga podrá reservar algunas parcelas destinadas específicamente a los grupos de interés.

2. Por tanto, por tratarse de una autorización para la utilización de bienes de dominio público se procederá a la celebración de un periodo de información pública, en los términos previstos en el artículo 83.º de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

3. El Régimen que se aplicará a la adjudicación, posesión y disfrute de los huertos ecológicos de ocio, será el previsto en la presente Ordenanza.

4. Subsidiariamente, se aplicarán las normas contenidas en la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas y Reglamento de Bienes de las entidades locales.

5. Si hubieren más solicitudes admitidas que huertas a adjudicar, la adjudicación se realizará mediante sorteo.

*Artículo 8. Título de autorización.*

La autorización otorga un uso del huerto personal e intransferible, y sólo producirá efectos mientras concurran las condiciones establecidas para su concesión. La persona usuaria no podrá en ningún caso, ceder, gravar o disponer a título oneroso

edo kostubidez eman baimenak emandako baimenaren erabilerari lotutako eskubideak. Eskubide horiek ezingo zaizkio beste inori eman inola ere.

Lagatako baimenaren titulua «prekario» eran izango da, eta Udalak, interes publikoko kausa justifikatuak badaude, edozein unetan kendu ahalko dio baimena edozein erabiltzaileri, Udalaren aldetik inolako kalteordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe.

Interes publikoko kausa justifikatuak izan daitezke, «aisialdirako baratze ekologikoak» programa ordezkatzen duen edo harekin bateraezina den beste edozein udal-programa onartzea, edo, baita ere, Udalak edo beste edozein Herri Administrazioko hiri edo azpiegituren garapenerako edozein plan onartzea, baldin eta plan horrek berekin badakar aisialdirako baratze ekologikoen kokapen berean edozein zuzkidura publiko ezartzea.

Kasu horietan, aipatutako planaren onarpenarekin batera gizarte intereseko edo erabilera publikokoa delako aitorpena egingo da, eskatzen diren lursailen erabilerarentzako tituluen balioa indargabetuko duena, eta emandako baimenaren zati baten edo osorik galtzea ekar lezakete, inolako kalteordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe.

*9. artikulua. Baratzeen programaren funtzionamendurako jarraibideak.*

Alkateak, edo hark izendatutako ordezkari batek, eman ahal izango ditu aisialdirako baratze ekologikoen programaren jardueraren alderdi orokor zein zehatzei buruzko jarraibideak, esaterako, lan egiteko erak, ordutegiak, labore-mota eta abar, izaera orokor zein bereziaz zehazteko. Baratzeen erabiltzaileek derrigorrez bete beharko dituzte jarraibide hauek eta, baita ere, alkatetzak, zinegotzi eskuordetuak edo horren ardura duten Udaleko langileek gai horren beraren gainean erabiltzaileei egiten dizkieten ahozko ohartarazpenak.

II. ATALA

ESLEIPEN-PROZEDURA

*10. artikulua. Onuraduna izateko baldintzak.*

Aisialdirako baratze ekologikoak erabiltzeko baimenen onuradun izan daitezke Zumarragako udalerrian erroldatuta dauden pertsonak deialdia argitaratzen den urteko urtarrilak 1etitk aurrera eta, gainera, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Fisikoki gai izatea aisialdirako baratze ekologikoan garatuko diren nekazaritza eta laborantza jarduerak egiteko.

Adingabeen eskabideek ama, aita edo tutoreen abala dutela etorri beharko dute, eta pertsona helduak izango du erantzukizuna, Araudi honen ondorioetarako.

b) Zumarragako Udalaren edo/eta Administrazio Publikoekiko zerga-betebehar eta gainerako ordainketa guztiak egunean edukitzea.

c) Beste baratze ekologiko baten erabiltzailea den familia unitate bateko kidea ez izatea.

d) Eskatzaileak edo bere familia-unitateko kideren batek ez edukitzea, ez jabetzan, ez gozamen-eskubidean edo alokairuan nekazaritza-jarduerarako egokia den izaera landatarreko lursailik, edozein tokitan dagoela ere.

e) Zigorrik ez izatea lehenago aisialdirako beste baratze ekologiko baten jabe izan delako, Araudi honetan horrela aurreikusten baita.

Kuadrillako kideen % 50ak Zumarragan egon beharko du erroldatuta.

o gratuito de los derechos que se deriven de la utilización de uso autorizado. Dichos derechos no podrán ser un ningún caso objeto de transmisión a terceras personas.

La autorización concedida será a «precario» para la persona usuaria, pudiendo el Ayuntamiento por causas justificadas de interés público revocar la autorización concedida en cualquier momento sin derecho a indemnización alguna por parte del Ayuntamiento.

Pueden ser causas justificadas de interés público, la aprobación de cualquier programa municipal que sustituya o sea incompatible con el programa de «huertos ecológicos de ocio», o también la aprobación de cualquier Plan de desarrollo urbanístico o de infraestructura por parte del Ayuntamiento o cualesquiera otra Administración Pública, que conlleve la implantación de cualquier dotación pública sobre los terrenos destinados a huertos ecológicos de ocio.

En estos casos, la aprobación del referido Plan conllevará la declaración de utilidad pública o interés social, a efectos de dejar sin vigencia los títulos habilitantes para el uso de los terrenos demaniales, y pueden dar lugar a la pérdida total o parcial de la autorización concedida sin derecho a indemnización alguna.

*Artículo 9. Instrucciones de funcionamiento del programa de huertos.*

El Alcalde, o la persona responsable que designe, podrá dictar instrucciones sobre aspectos generales o concretos de la actividad del programa de huertos ecológicos de ocio a fin de disciplinar formas, horarios, tipos de cultivos, etc. con carácter general o especial y que serán de obligado cumplimiento por las personas usuarias de los huertos, así como las órdenes o indicaciones que sobre el mismo asunto, la Alcaldía, el/la concejal/a delegado/a o la persona encargada por el Ayuntamiento realice verbalmente a las personas usuarias.

TÍTULO II

PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN

*Artículo 10. Requisitos para ser persona beneficiaria.*

Podrán ser beneficiarios y beneficiarias de las autorizaciones de ocupación de los huertos ecológicos de ocio las personas empadronadas en el Municipio de Zumarraga a 1 de enero del año de publicación de la convocatoria y que cumplan además con los siguientes requisitos:

a) Tener las condiciones físicas suficientes para realizar las actividades agrícolas y de labranza que se desarrollarán en el huerto ecológico.

Las solicitudes de menores de edad deberán venir avaladas por la madre, el padre, o el tutor, siendo la persona adulta la responsable a efectos de esta Normativa.

b) Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias o de otra índole con el Ayuntamiento de Zumarraga y/o Administración Pública.

c) No ser miembro de la unidad familiar de las personas usuarias de otro huerto ecológico.

d) No tener en propiedad ni quien solicita ni ninguna persona de la unidad familiar terrenos de naturaleza rústica, que sean aptos para actividades agrícolas, en cualquier lugar.

e) No haber sido sancionado o sancionada en razón a la posesión anterior de huertos públicos ecológicos de ocio por incumplimiento previsto en la presente Ordenanza.

El 50 % de los miembros de las cuadrillas deberá estar empadronado en Zumarraga.

Jasotako eskariak dauden baratzak baino gutxiago badira, deialdi berri bat publikatzea baloratuko da non ondoko bizilagunak (Urretxu eta Legazpi) eskatzeko aukeraren izango duten.

*11. artikulua. Baimenak emateko prozedura.*

1. Aisialdirako baratze ekologikoak okupatzeko eta beroriek erabiltzeko eskubidea ematen duten baimenak banatzeko prozeduran aplikatuko den erregimena konkurrentziarena izango da, kontuan izanik baimen kopurua mugatua dela. Hala ere, arau hori ez zaie intereseko taldeei aplikatuko, haientzat udalak lursail batzuk gorde ahal izango baititu beren erabilera espezifikorako.

2. Prozedura hori ofizioz abiaraziko du Udalak, eskumena duen tokiko organoak horretarako Ebazpena egin ondoren; ebazpen horretan jasoko da aisialdirako baratze ekologikoak erabiltzeko eta aprobetxatzeko baimenak emateko deialdia, dela baratze guztiei dagokiena, dela baratz horietako kopuru mugatu bati dagokiona. Deialdi hori udaletxeko iragarki-taulan argitaratu beharko da, baita Udalaren webgunean ere (www.zumarraga.eus).

3. Baratze ekologikoen esleipenean interesa duten pertsonek eskabide bat aurkeztu beharko dute Udal Erregistroan, eredu ofizialari jarraituz. Eskabideari erantsi behar zaizkio eredu ofizial horretan eskatutako dokumentuez gain, honako dokumentu hauek:

a) NANa edo horren ordezko den beste agiri legalen baten fotokopia.

b) Aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak edo zinpeko aitorpena.

Udalak ofizioz egiaztatuko du erroldatuta daudela, arauhausterik batere ez dagoela eta Udalaren zerga betebehar edo beste mota bateko betebehar guztietan egunean dagoela.

*12. artikulua. Eskumena eta prozedura.*

Alkateak ebatziko du erabilerarako eta aprobetxamendurako baimena emateko prozedura.

Gutxienez hamar egun naturaleko epea ezarriko da instantziak aurkezteko. Ondoren ontzat emango da onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda, baremazioa eta erreserbarako daudenen izenak erantsita; zerrenda hori iragarkien panelean eta Zumarragako Udalaren webgunean argitaratuko da.

Interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte gehienez bost egun naturaleko epean. Epe hori amaituta, eta jasotako erreklamazioak ebatzita, onartu eta baztertuen behin betiko zerrendaren ebazpena egingo da, baremazioa azalduta. Baremazioan berdinketarik gertatuko balitz, jendaurreko zozketa egingo da, zozketako data behar bezala iragarrita.

Behin balorazioa eta, behar izanez gero, zozketa eginda daudela (hala badagokio), esleipen-zerrenda eta erreserben behin betiko zerrenda udaletxe ko iragarki-taulan eta Zumarragako Udalaren webgunean argitaratuko dira.

*13. artikulua. Baimen esleipena eta ordezkoen zerrenda.*

Esleipendunei ematen zaien baimenak argi azaldu beharko du zein diren baratzearen xedea, definizioa eta kokapena, erabiltzailearen eskubide eta betebeharrak eta baimenaren indarraldia.

Eskabidea gutxi baloratu zaielako aisialdirako baratze ekologikoak esleitzeko baimenik eskuratzerik izan ez duten pertsonak ordezkoen zerrenda batean sartuko dira, zeina jasotako balorazioaren arabera baratze mota bakoitzaren arabera sailkatuta egongo baita. Ordezkoen zerrenda hori erabiliko da bajak

En caso de que las solicitudes no cubran el total de las huertas, se valorará publicar una nueva convocatoria que permita la solicitud por parte de vecinos de los municipios colindantes (Urrtexu y Legazpi).

*Artículo 11. Procedimiento para el otorgamiento de las autorizaciones.*

1. El procedimiento aplicable al otorgamiento de las autorizaciones que habiliten para la ocupación de los huertos públicos ecológicos de ocio y que faculten para su uso y disfrute, será en régimen de concurrencia, dado el número limitado de las mismas. No obstante dicha regla no será aplicable para los grupos de interés para los cuales el Ayuntamiento podrá reservar determinadas huertas de uso específico.

2. Dicho procedimiento se iniciará de oficio por el Ayuntamiento, previa Resolución en tal sentido dictada por el organismo local competente, en la que se contendrá la convocatoria para el otorgamiento de autorizaciones de uso y aprovechamiento de huertos ecológicos de ocio, bien referida a la totalidad de las huertas o a un número limitada de ellas. Dicha convocatoria será objeto de publicación en el Tablón de Edictos del Ayuntamiento, así como en la página web del Ayuntamiento (www.zumarraga.eus).

3. La persona interesada en la adjudicación de los huertos ecológicos deberá presentar solicitud en el Registro municipal, con arreglo al modelo oficial. A la solicitud deberá acompañar, además de los documentos que se exijan en el modelo normalizado, la siguiente documentación:

a) Fotocopia del DNI o documento que legalmente le sustituya.

b) Documentos o declaración jurada de que cumple los requisitos establecidos en el artículo anterior.

El Ayuntamiento comprobará de oficio el empadronamiento, la ausencia de infracciones cometidas y el cumplimiento de estar al corriente de las obligaciones tributarias o de otra índole para con este Ayuntamiento.

*Artículo 12. Competencias y procedimiento.*

El procedimiento de autorización de uso y aprovechamiento se resolverá por la Alcaldía.

Se establecerá un plazo de al menos 10 días naturales para presentar instancias. A continuación se aprobará la lista provisional de personas admitidas y excluidas, junto con la baremación y lista de reserva, que se publicarán en el Tablón de Anuncios y en la página web del Ayuntamiento de Zumarraga.

Las personas interesadas podrán presentar reclamaciones en el plazo máximo de cinco días naturales. Finalizado dicho plazo, y resueltas las reclamaciones recibidas, se dictará resolución que contenga la lista definitiva de personas admitidas y excluidas, junto con las explicaciones de la baremación. En el caso de que haya empates en la baremación, se efectuará un sorteo público; la fecha se anunciaría con la debida antelación.

Una vez esté hecha la valoración, y en su caso el sorteo, se publicará la lista de adjudicación y la lista de reserva definitiva, publicándose en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y en la página web del Ayuntamiento de Zumarraga.

*Artículo 13. Adjudicación de autorizaciones y lista de suplentes.*

La autorización que se conceda a las personas adjudicatarias, deberá especificar la finalidad, la definición y emplazamiento del huerto, los derechos y obligaciones de la persona usuaria y la vigencia de la autorización.

Las personas que no hubieran sido beneficiarias de la obtención de una autorización para la adjudicación de algún huerto ecológico de ocio pasarán a integrar una lista de suplentes en función de la posición que haya sido resultante en la baremación y que será utilizada para cubrir bajas para los casos

EK\CV GAO-I-2019-01439

betetzeko baldin eta baimenaren bitartez jasotako eskubidea nahita edo ezinbestez galtzen bada edo eskubideari uko egiten bazaio; kasu horietan, dei bat egingo zaio hurrengo hautagaiari, aipatutako zerrendan duen ordenaren arabera, baimena indarrean dagoeneko epearen zein jarritako laborea emankor dagoeneko epearen barruan.

Baratzearen erabilera baimentzen duen baimena esleitu ondoren, esleipendunak autolikidatu beharko du urteko kuotaren kopurua eta fidantzari dagokion zenbatekoa eman, esleitutako baimena jasoko badu. Fidantza itzuliko da esleipenerako epea igaro ondoren, non eta denboraldi berrirako beste baratze baten adjudikazioduna izan ez bada.

3. artikuluko h) atalean aipatutako interesdun taldeak edozein ordainketa egitetik eta fidantza aurkezteko egin beharrez salbuetsita egongo dira.

*14. artikulua. Baremazio-irizpideak.*

Baremazio irizpideak lizitaziorako deialdi bakoitzean zehaztuko dira.

Zumarragako Baratze Parkeko lursailak emateko baremazio irizpideak finkatzeko printzipio orokorrak.

Zumarragako Baratze Parkean era guztietako jendea biltzea sustatuko da: adinekoak eta gazteak, gizon eta emakumeak, kuadrillak eta eskolak, elbarriak, irabazi asmorik gabeko elkarteak, eta abar.

Eskolek lursail bat edukitzea nahi eta nahiezkoa ikusten da. Horren harira, lursailak gordeko dira eskolentzat, hiru guztira.

Baratzeak sei taldetan sailkatuko ditugu:

Talderen batean lurzati guztiak betetzen ez badira, beste talde batzuei irekiko zaizkie.

43 baratze eta 2 bankal jarriko dira hiritarren eskura, Udalak honela banatuko dituenak:

— A taldea: mugikortasun gutxitua duten pertsonentzat, gurpildun aulkian mugitzen direnak: altueran dauden 2 baratze egokitu.

— B taldea: gizarte laguntza bezala, kumunitate-ikuspuntutik, 30 $m^2$-ko 10 baratze belaunaldiarteko taldeentzat aiton/amona beraien bilobekin bezala.

— C taldea: 30 $m^2$-ko 6 baratze 16 eta 24 urte bitarteko gazteen koadrilentzat eta 30 $m^2$-ko 4 baratze irabazi asmorik gabeko elkarteak edota udalaren interesekoak.

— D taldea: 30 $m^2$-ko 10 baratze beren ezaugarri bereziak direla-eta beste batzuen aldean gizarte egoera ahulekotzat hartzen diren kolektiboak, hala nola, erretiratuak edo aurre-erretiratuak, langabetuak edo aniztasun funtzionala dutenak, etab.

— E taldea: 30 $m^2$-ko 10 baratze herritarren artean banatzeko.

— F talde: 30 $m^2$-ko 3 baratze Zumarragako eta Urretxuko eskola zentroentzat, derrigorrezko irakaskuntzararte.

Eskatzaileak eskabidea aurkezteko garaian duen adinaren arabera sailkatuko dira eskaerak aipatutako adin talde bakoitzean.

*15. artikulua. Baimenen behin-behinekotasuna.*

1. Aisialdirako baratze ekologikoak daudeneko eremu publikoaren erabilera eta gozamenerako eskubidea ematen duten baimenek 4 urte arteko iraupena izango dute eta luzaezinak izango dira, nahiz eta titularrak hurrengo deialdietan parte hartu ahal izango duen.

2. Kasu bakoitzean eskumena duen tokiko organoak indargabetu ahal izango ditu aipatutako baimenak, baldin eta be-

de renuncia o pérdida voluntaria o forzosa del derecho otorgado a través de la concesión de la autorización de ocupación para el uso y disfrute de los huertos ecológicos, realizándose un llamamiento a la siguiente persona candidata según el orden que ocupara en la lista referida, dentro del periodo de vigencia de la autorización.

Una vez adjudicada la autorización que autoriza el uso del huerto, la persona adjudicataria deberá autoliquidar el importe de la cuota establecida por el Ayuntamiento y depositar el importe de la fianza establecida a fin de recibir la correspondiente autorización concedida. La fianza se devolverá una vez transcurrido el plazo de adjudicación, sin haber resultado adjudicatario o adjudicataria de otro huerto para esa nueva temporada.

Los colectivos de interés señalados el punto h) del artículo 3 quedan exentos de la obligación cualquier pago o presentación de fianza.

*Artículo 14. Criterios de baremación.*

Los criterios de baremación se especificarán en la convocatoria de cada licitación.

Principios generales para establecer los criterios de baremación para la adjudicación de las parcelas de Zumarragako Baratze Parkea.

Se va a promover que en el Baratze Parkea de Zumarraga se reúna todo tipo de gente: mayores y jóvenes, hombres y mujeres, cuadrillas y escuelas, con diversidad funcional, asociaciones sin ánimo de lucro, etc.

Se considera necesario que los colegios dispongan de una parcela. Por eso, se van a guardar parcelas para los colegios, tres en total.

Las huertas las clasificaremos en seis grupos:

En caso de no llenarse las parcelas por algún grupo, se abrirían a otros grupos.

Se van a poner a disposición de la ciudadanía 43 huertas y 2 bancales que el Ayuntamiento distribuirá de la siguiente manera:

— Grupo A: personas con movilidad reducida que se desplazan en silla de ruedas: 2 bancales elevados.

— Grupo B: como apoyo social desde la perspectiva comunitaria, 10 huertas de 30 $m^2$ para grupos intergeneracionales como abuelos/abuelas con sus nietos/nietas.

— Grupo C: 6 huertas de 30 $m^2$ para cuadrillas de jóvenes de entre 16 y 24 años y 4 huertas de 30 $m^2$ para las asociaciones sin ánimo de lucro y/o de interés municipal.

— Grupo D: 10 huertas de 30 $m^2$ para colectivos que por sus especiales características se consideran vulnerables respecto de otros, tales como personas jubiladas o pre-jubiladas, personas en situación de desempleo o con diversidad funcional, etc.

— Grupo E: 10 huertas de 30 $m^2$ para la ciudadanía en general.

— Grupo F: 3 huertas de 30 $m^2$ para los centros escolares de Zumarraga y Urretxu hasta la enseñanza obligatoria.

La pertenencia a cada grupo de edad se considera en virtud de la edad que se tenga en el momento de la presentación de la solicitud.

*Artículo 15. Temporalidad de las autorizaciones.*

1. Las autorizaciones que habiliten para el uso y disfrute del dominio público sobre el que se asienten los huertos ecológicos de ocio, tendrán la duración de cuatro años improrrogables, aunque la persona titular podrá optar a las siguientes convocatorias.

2. El órgano local que resulte competente en cada caso, podrá dejar sin vigencia las citadas autorizaciones, si se incum-

EK\CV GAO-I-2019-01439

tetzen ez badira emakida arrazoitu zuten baldintzak edo adjudikaziodunei dagozkien betebeharrak zeinak Araudi honetan zerrendatzen baitira. Indargabetzea zehaztutako prozedurarekin bat etorrita egingo da.

*16. artikulua. Baimenen transmisioa eta iraungitzea.*

Aisialdirako baratze ekologikoak erabiltzeko eskubidea ematen duten baimenak:

a) Ezingo zaizkio hirugarren bati transmititu.

b) Epea betetzean iraungiko dira.

c) Ezeztatu edo baliogabetu ahal izango dira:

— Alde bien adostasunarengatik.

— Ebazpen judizial baten bitartez.

— Emakidadunak uko egiteagatik.

— Araudi honetan edo baimen bakoitza ematen duen ebazpenean bildutako betekizun eta xedapenak ez betetzeagatik, interesdunari entzun eta espedientearen tramitazioa egin ondoren.

